
III.

**EAE-KO 2030ERAKO
BIODIBERTSITATE ESTRATEGIA
EGITEKO PARTE-HARTZEARI
BURUZKO TXOSTENA**

2016ko maiatza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. METODOLOGIA	4
a) Udalsarea 21ekiko lan-tailerra	4
b) Funtsezko eragileei elkarrizketak	4
c) Teknikarientzako galdetegiak	5
d) Biodibertsitateari buruzko lehenengo Gizarte Foroa	6
e) Irekia web-plataforman prozesua bultzatzea	7
3. EMAITZAK	8
a) Udalsarea 21ekiko lan-tailerra	8
b) Funtsezko eragileei elkarrizketak	11
c) Teknikarientzako galdetegiak	12
d) Biodibertsitateari buruzko lehenengo Gizarte Foroa	13
e) Irekia web-plataforman prozesua bultzatzea	16
f) Parte-hartze prozesuaren laburpen-koadroa	18
4. JASOTAKO EKARPENEN BILDUMA	19
a) Udalsarea 21eko teknikarientzako inkesta	19
b) Funtsezko eragileei elkarrizketak	20
c) Teknikarientzako galdetegia	24
d) Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroa	27
e) Prozesua Irekia web-plataforman	31

1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak, Gobernuaren Plan Estrategikoen egutegian finkatutako konpromisoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia landu du.

Horretarako, Euskadiko natura-ondarearen diagnostikoa egiten zen bitartean, herritarren parte-hartze prozesu garrantzitsu bat eraman da aurrera, eta horren bidez lortu diren emaitzak parte hartu duten pertsonen, eragile sozialen eta teknikarien iritzien eta kezken adierazleak dira. Agente guztiak, gai honetan garrantzitsuak, askotariko arlo eta sektoreei buruz aritu ziren, eta beraien pertzepzio partikularrak adierazi zituzten. Era berean, prozesu honetan, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek, foru-aldundiek, udalerriek eta gizarteak oro har lagundu dute, egin diren bileren, elkarrizketen eta foroen bidez.

Partaidetza-prozesu honen helburu nagusiak hauek izan dira:

- Biodibertsitate Estrategiaren jarduketa-eremua eta irismena zehaztea, lehentasunak ezarrita eta gainerako plangintza estrategikoekin koherentzia dutela bermatuta.
- Gainerako administrazio publikoekin batera lan egitea ekintza-esparru komun bat eraikitzeko, konpromiso eta ardura partekatuak zehaztuta.
- Estrategia berri honi buruz informatzea, eta parte hartu duten pertsona zein agenteen aldetik ahalik eta iritzi, proposamen, ekarpen eta iradokizun gehien jasotzea.

Txosten honetan, parte-hartze prozesuko alderdi guztiak zehazten dira, metodologia, eragileak eta lortutako emaitzak nabarmenduta.



2. METODOLOGIA

Parte-hartze prozesu honen ezaugarria honako hau da: Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia lantzeko beti Euskadiko administrazio guztiekin batera, beraien eragileak eta plangintza estrategikoak barneratuz, lan egiteko ahalegina egin dela. Horrela, ikuspegi partzialak edo zatituegiak edo itxiegiak saihesteko asmoa zegoen. Horren adibide garbi gisa, Biodibertsitate Estrategia lantzeko mahaian, hasieratik, biodibertsitatearen kontserbazioaren, nekazaritzaren eta geodibertsitatearen arloetako ordezkariak parte-hartze aktiboa izan dute.

Estrategiaren eztabaidan eta lanketan pertsonen eta agenteen parte-hartze handia lortzeko, partaidetza-prozesua bost eratako jarduketan arabera garatu da.

a) Udalsarea 21ekiko lan-tailerra

Udalsarea 21en Batzorde Teknikoaren 48. bileran, 2015eko abenduaren 2koan, «Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategiaren oinarriak tokiko ikuspegitik zehazten eta egiaztatzen» tailerra egin zen. Partaidetza-prozesuko fase honen helburua prozesuan tokiko ezaguera eta begirada txertatzea zen. Tailerrak honako helburu zehatz hauek zituen:

- Parte hartu duten udalerriek/eskualdeek azken urteetan biodibertsitatearen arloan garatu dituzten ekintza-ildo nagusiak ezagutzea.
- Egindako lana balioestea, arrakastak eta desfioak edo oraindik gainditzeko dauden erronkak identifikatuz.
- Udalek galdetegi zehatz bat betez Estrategia prestatzen lagundu zezaten sustatzea.

Hala, tailerraren oinarria taldearekin batera ibilbide bat egitea izan zen: lehenik eta behin, 12 udalerrri eta eskualde parte-hartzaileek arlo honetan garatzen dituzten lan-ildo nagusiak partekatzea, eta horren ostean, egindako lana baloratzea, arrakastak identifikatuz, baita Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategiaren bidez erantzun beharko liratekeen desfioak edo oraindik gainditzeko dauden erronkak ere.

Ondoren, zazpi galdetegi jaso ziren. Galdetegi horietan, tailerrean landutakoen osagarriak ziren beste alderdi batzuk zehazten ziren.

b) Funtsezko eragileei elkarrizketak

Biodibertsitatearen alderdiei buruzko ikuspegi globala eta zeharkakoa izateagatik aukeratu diren hainbat instituzio publikotako funtsezko eragileei bederatzi elkarrizketa pertsonalizatu egin zaizkie. Estrategiaren lan-mahaiaik lehen aipatutako profilari jarraituz

aukeratu zituen eragile horiek, aukeraketa horretan natura-ondarearen kudeaketarekin lotura handiena daukaten administrazioak ere ordezkaturata egotea bilatuz. Estrategia prestatzeko unean, aukeratutako pertsonak erakunde hauetara atxikita zeuden:

- URA-Uraren Euskal Agentzia, ingurumen-arloko eskumena daukan Eusko Jaurlaritzako sailera atxikia.
- Garapen Jasangarriari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO katedra, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailera atxikia.
- HAZI Fundazioa, Itsasmendikoi eta IKT enpresen eta Kalitatea Fundazioaren arteko fusioa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailera atxikia.
- AZTI-Tecnalia Fundazioa, itsasoaren eta elikagaien ikerketan espezializatutako Euskadiko zentro teknologikoa.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua, kide anitzeko organoa, Urdaibain eskumena duten administrazioetako ordezkariak eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-interesei dagokienez eragile esanguratsuak diren erakunde eta elkarteetako ordezkariak osatuta.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritza Nagusia eta Nekazaritzako eta Landa Garapenekeo Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzaren Natura Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Lurralde Plangintza eta Hirigintza Zuzendaritza.

Partaidetza-ekimen honen helburua honako hau izan zen: beren ibilbidearen eta/edo lanpostuaren arabera hautatutako pertsona horien iritzia biltzea eta txertatzea, EAEko 2030erako Biodibertsitate Estrategia osatu beharko luketen oinarrizko alderdi estrategikoak definitzeko/sendotzeko.

c) Teknikarientzako galdetegiak

Estrategia honen barruko hainbat arlotan duten parte-hartzeagatik funtsezkotzat jotzen diren teknikariei bidalitako 10 galderako online galdetegiak betetzea izan da jarduketa honen funtsa. Zehazki, hiru foru-aldundietako, kostaldeko mugapeetako, konfederazio hidrografikoetako eta Euskal Herriko Unibertsitateko 37 eragileri bidali zitzairen.

Gutxi gorabehera 60 pertsona biltzen zituen zerrenda bat hartu, eta azkenean, jarraipen-mahaian eztabaidatu ondoren, 37 hautatuz aukeratu ziren eragileak.

Kontsulta honen helburua diagnostikoko alderdi batzuk sendotzea eta lehentasunezko jarduketa-ildotzat hartu beharko liratekeen Estrategiaren oinarriak finkatzea izan da.

d) Biodibertsitateari buruzko lehenengo Gizarte Foroa

Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroa, 2016ko otsailaren 10ean egina, EAEko 2030erako Biodibertsitate Estrategia egiteko partaidetza publikoko prozesuaren barruko mugarririk nabarmenena izan zen. Lan-topaketa honetan (publiko guztiarentzat izan zen eta diziplina anitzeko partaidetza izan zuen) Euskadiko ingurumen-sektorean jarduten duten instituzio publiko eta erakunde nagusiak izan ziren.

Honako hauek izan ziren partaidetza-foroaren helburu teknikoak:

- EAEko 2030erako Biodibertsitate Estrategiaren etorkizuneko ikuspegia edo lortu beharreko egoera kontrastatzea: gako nagusiak.
- Estrategiari forma emango dioten eta etorkizunean lortu beharreko egoera lortzeko lagundu behar duten irizpideak eta lan-ildoak definitzea.

Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroa ekitaldi irekia izan zen, eta ahalik eta parte-hartze handiena lortzeko helburuarekin, hainbat komunikabide digitaletan argitaratu zen (Twitter, Facebook, Irekia, etab.). Aipatzekoa da foroa egin baino egun batzuk lehenago izen-ematea itxi egin behar izan zela, aurretik dinamikak arrakastatsuak izatea bermatzeko finkatu zen edukiera beteta zegoelako.

Euskadiko Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroa Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko sailburuordeak inauguratu zuen. Jarraian, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariak, lehenik eta behin, Euskadiko natura-ondarearen egoeraren analisia eta diagnostikoa aurkeztu zituen, funtsezko 9 ideiatan jasota. Gero, parte-hartzaileei 2030ean biodibertsitateak izan beharko lukeen egoerari buruzko hasierako ikuspegi baten proposamen bat lan-tailer baten bidez kontrastatzeko eskatu zitzairen.

Parte-hartzaileak bederatzi lan-mahaitan batu ziren, horietako bakoitzean dinamikak gidatzeko dinamizatzaile bana izanik. Hasieran, mahai bakoitza ausaz osatu zen, pertsonak mahai batean edo bestean esertzea erabaki ahala. Mahaien osaketa mistoa eta diziplina anitzekoa izan zen eta hizkuntzaren erabilera (gaztelania eta euskara) bereizigabea izan zen. Jarraian, etorkizuneko eszenatoki desiratua erreferentziatzat hartuz, Estrategiak jaso beharko lituzkeen lehentasunezko sei arreta-foku definitu ziren.

Atsedenaldiaren ostean, lan-mahaiak Estrategiaren lehentasunezko arreta-fokuen edo -esparruen arabera definitu ziren, beraz, gaikako mahai bilakatu ziren. Kasu horretan, parte-hartzaileak beren interesen edo lehentasunen arabera birbanatu ziren.

Bertan elkartu ziren ehun lagunek –erakunde publiko eta pribatuetako ordezkariak, elkarte kontserbazionistetakook, ikertzaileak, etab.– lehentasunezko helburu eta jarduketa-lerro ugariaren eztabaidan eta proposamenean aktiboki parte hartu zuten.

e) Irekia web-plataforman prozesua bultzatzea

Eusko Jaurlaritzaren Irekia plataforma digitalaren bidez (Eusko Jaurlaritzak lan teknikoak hasi zirenean gaitu zuen, 2015eko urriaren 30ean), Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategiaren lanketa-prozesuan parte hartzeko interesa zuten pertsona guztiei horretarako aukera eman zaie. Herritarrek egokitzat jo dituzten iradokizunak egin dituzte, beren gogoetetan eta prozesuan zehar plataforma horretan jartzen joan den dokumentazioan oinarrituta.

Horrez gain, bitarteko dokumentazioa eta lan teknikoetan egiten joan diren zirriborro teknikoak ere plataforma horretan jaso dira.

3. EMAITZAK

a) Udalsarea 21ekiko lan-tailerra

Udalsarea 21-Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea EAeko udalerrietako Tokiko Agenda 21ak dinamizatzen dituen eta ekintza-planen gauzatzea bultzatzen duen koordinazio- eta lankidetzeta-foroa da. Tokiko erakundeen artean ingurumen-arloko adostasuna lortzeko tresna nagusia da, eta horregatik, hasieratik, toki-mailako parte-hartze kanal garrantzitsuenetako bat izan zen.


2015eko abenduaren 2an, Udalsarea 21en Batzorde Teknikoaren 48. bileran, zeinetan «Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategiaren oinarriak tokiko ikuspegitik zehazten eta egiaztatzen» lan-tailerra gai-zerrendaren barruan zegoen, **11 ordezkari** parte hartu zuten. Udal eta eskualde hauetakoak ziren:

Elgoibar-Deba - Debegesa - Abanto-Zierbena - Goieki - Legazpi - Mungia -

Aduna - Gernika - Zuia - Bilbo - Bermeo

- **Udalerri eta eskualde parte-hartzaileek azken urteetan biodibertsitate-arloan garatu dituzten ekintza-ildo nagusiak: Zertan lan egin dute azken urteetan udalerri parte-hartzaileek, biodibertsitateari dagokionez? Zer jarduketa-ildo nagusi garatu dira?**


Galdera horiek gidarizat hartuta, elkarlanean eta modu bisualean, tailerlean parte hartu duten pertsonak beren udalerrietan/eskualdeetan azken urteetan garatu dituzten jarduketa-ildo nagusiak aletzen joan ziren, argazki honetan laburbildu den lan-eszenatokia lortzeraino:



Hauek dira, zehazki¹:

- Plangintzaren arloko 5 ekarpen.
 - Kudeaketaren eta garapenaren arloko 7 ekarpen.
 - Ekintza zuzenaren arloko 6 ekarpen.
 - Sentsibilizazioaren eta heziketaren arloko 4 ekarpen.
- **Egindako lanaren balorazioa: lorpen nagusiak eta etorkizunerako desafio edo erronka nagusiak** Azken urteetan toki-mailan biodibertsitate arloan egindako lanari dagokionez: Zer lortu da? Zein dira lorpenak? Etorkizunerako zein desafio eta erronka identifikatzen dira?

Toki- eta eskualde-erakunde parte-hartzaileek biodibertsitate arloan garatu dituzten jarduketa-ildo nagusiak ezagutzeak eta partekatzeak analisian aurrerapauso bat ematea ahalbidetu zuen: tailerraren bigarren zatian, egindako lana baloratuta, lorpen nagusiak eta etorkizunerako erronkak identifikatu ziren. Argazki hau lortu zen:



Hauek dira, zehazki²:

- Tokiko ikuspegitik biodibertsitatearen arloko 9 lorpen nagusi identifikatu ziren.
- Tokiko ikuspegitik biodibertsitatearen arloko 11 etorkizunerako desafio eta erronka nagusi identifikatu ziren.

¹ Zehaztutako ekarpenak Udalsarea 21en Batzorde Teknikoaren jardunaldiko emaitzei buruzko txostenean daude:

http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/7625/Resultados_Taller_Bio_ComiteUS21_es.pdf?1455177200 (azken sarrera 2016-5-9an).

² Zehaztutako ekarpenak Udalsarea 21en Batzorde Teknikoaren jardunaldiko emaitzei buruzko txostenean daude:

http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/7625/Resultados_Taller_Bio_ComiteUS21_es.pdf?1455177200 (azken sarrera 2016-5-9an).

Sexuaren arabera, tailerreko parte-hartzea honakoa izan zen:

Sexua	Pertsona kopurua	%
Emakumeak	8	% 73
Gizonak	3	% 27
Guztira	11	% 100

Tailerreko lanak ordu eta erdi iraun zuen. Ondoren, parte-hartzaileei inkesta bat betetzeko eskatu zitzaien. Tailerra egin eta gero, inkesta udalerrri guztiei bidali zitzaien, online, Udalsarea 21eko Idazkaritza Teknikoaren bitartez. Honako galderaz osatuta zegoen:

- 1. Kapital naturalak zure udal-esparruan dituen honako mehatxuei garrantzia-maila bat esleitu diezaiekezu (txikia, ertaina, handia, oso handia)? Klima-aldaketa, espezie exotiko inbaditzaileak, urbanizatzea/artifizializatzea, kutsadura, erabilera-jarduketak areagotzea, erabilera-jarduketak uztea eta natura-baliabideen espoliazioa.*
- 2. Zure udalerriko natura-ingurunean garatzen den erabilera edo jarduketa motaren bat bereziki negatiboa iruditzen zaizu? Zein?*
- 3. Zer lehentasun (txikia, ertaina, handia) emango zenioke kapital naturalaren galera eta hondamenari, zure udalerriko beste ingurumen-arazo batzuekin lotuta?*
- 4. Zer lehentasun emango zenieke biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen arloetako kudeaketa-estrategia hauei? Erantzunak 1etik 7ra ordenatu (1= lehentasun oso txikia; 7= lehentasun oso handia): a) Araudia indartzea eta eguneratzea, b) Naturagune Babestuen Sarea zabaltzea, c) Kontserbazio-egoeren jarraipena egin eta kontrolatzea, d) Ekosistemak mantentzea eta hobetzea, e) Teknikariak prestatzea eta gaitzea, f) Erakundearteko koordinazio-kanalak sortzea, eta g) Herritarrak hezte eta sentsibilizatzea.*
- 5. Zure udalerrian zer jarduketa egiten dira kapital naturaleko elementuak kontserbatzeko (habitatak, espezieak eta interes geologikoko lekuak)? Zein mehatxurekin lotuta egongo liratekeen adierazi, mesedez (1. galderan deskribatutakoen artetik), eta kasuan kasu, erantsi.*
- 6. Zure ardurapeko eremuan zer muga edo oztopo nagusi daude biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen kudeaketa eraginkorra egiteko? Adierazi, mesedez.*
- 7. Zure udalerrian biodibertsitaterako eta geodibertsitaterako tresna estrategiko/normatibo zehatzik ba al dago? Zein?*
- 8. Zure udalerrian Naturagune Babesturen bat dago? Baiezko kasuan, adierazi, mesedez, zein motatakoa den (Aparteko Zuhaitzak, Biotopo Babestuak, Parke Naturalak, Urdaibai Biosfera Erreserba, Batasunaren Garrantzizko Lekua, Kontserbazio Bereziko Eremuak edo Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak).*
- 9. Naturagune Babestu bat izateak zer ekarpen egiten du zure udalerrian? Abantailak eta desabantailak adierazi, mesedez.*

10. Zure udalerriko biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen egoera kontrolatzen da eta/edo kokaleku eta elementu garrantzitsuenena? Zergatia adierazi, mesedez.

11. Zure udalerriko udal-plangintzan biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen arloko lehentasunak kontuan hartzen dira? Zergatia adierazi, mesedez.

12. Kapital naturalarekin lotutako zein gairi buruzko informazio zehatzagoa jaso nahiko zenuke?

Zazpi galdetegi jaso ziren eta horien emaitzak Estrategiarako hasieran definitutako 5 xedeen, lau jarduketa-ildo proposamenen eta 16 ekintza-proposamenen arabera antolatuta ziren. Horiek «Jasotako ekarpenen bilduma» atalean multzokatuta daude.

Guztira, Udalsarea 21en **62 ekarpen** jaso ziren.

b) Funtsezko eragileei elkarrizketak

Aurrez aurreko bilerak pertsonen kezkak –kasu honetan, natura-ondarearekin lotutako jarduketaren bat egiten duten pertsonenak– hautemateko tresna eraginkor bat dira.

Guztira, **bederatzi elkarrizketa** egin ziren erakunde publikoetako zuzendaritzetako eta sozietate publikoetako arduradunekin (Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia eta Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia eta Eusko Jaurlearitza Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza, URA, Ihobe, HAZI Fundazioa, AZTI-Tecnalia, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua). Baita EHUekin ere. Gurekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla-eta, Bizkaiko Foru Aldundiarekin aurreikusitako elkarrizketa ezin izan zen aurrera eraman.

Pertsona bakoitzari egindako elkarrizketaren gidoia aurrez landuta zegoen. Elkarrizketatuen parte-hartzea errazteko, hitzorduak gauzatu baino lehen, EAEko Biodibertsitate Estrategiaren ardatz egituratzaile funtzioa betetzen duen Euskadiko Natura Ondarearen Diagnostikoan garatutako esparru nagusien eskema bat helarazi zitzaion –une horretan, diagnostikoa osatzen ari zen–. Esparru horren barruan, elkarrizketaren izendatzaile komuna funtsezko bi galdera izan ziren:

- *Orain arte, biodibertsitatearen arloko zein jarduketa-ildo eraman dira aurrera zure ardurapeko eremuan eta nola emango zaie jarraipena (esparru berrietan lan egingo den, etab.)?*
- *Zein da EAEko biodibertsitatearen arloko 2030era begirako zure ikuspegia? 2030ean natura-ondarearen egoera nolakoa izatea nahiko zenuke eta zein dira helburu hori lortzeko lehentasunezko ekintza-ildoak?*

Atera ziren kezkak eta iradokizunak «Jasotako ekarpenen bilduma» atalean bildu dira. Guztira, 58 ekarpen jaso ziren funtsezko eragileei egindako elkarrizketetatik. Proposamenak multzokatuta, 21 jarduketa-ildo eta 37 ekintza lortu ziren.

Elkarrizketak honela banatu ziren, elkarrizketatutako pertsonen generoari dagokionez:

Sexua	Pertsona kopurua	%
Emakumeak	3	% 33
Gizonak	6	% 67
Guztira	9	% 100

c) Teknikarientzako galdetegiak

«Metodologia» atalean adierazi den bezala, parte-hartze prozesuaren barruan, Estrategian lantzen diren esparruetan daukaten inplikazioa dela-eta garrantzitsutzat jo ziren 37 pertsonari galdetegi bat bidali zitzaion. Beraien erantzunek diagnostikoa kontrastatzen eta EAEko 2030erako Biodibertsitate Estrategiako jarduketako-ildoak definitzen laguntzea zen helburua.

Aipatutako galdetegiak honako galderez osatuta zegoen:

1. *Euskal Autonomia Erkidegoko kapital naturalak (biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen batura modura ulertuta) jasaten dituen honako presio hauei mehatxumailaren arabera kategoriatan bat esleitu diezaiekezu (txikia, ertaina, handia, oso handia)? Klima-aldaketa, espezie exotiko inbaditzaileak, urbanizatzea/artifizializatzea, kutsadura, erabilera-jarduketak areagotzea, erabilera-jarduketak uztea eta natura-baliabideen espoliazioa.*
2. *Biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen arloko honako kudeaketa-estrategia hauen artean, adieraz ezazu zure iritziz zein diren lehentasuneko hirurak: Araudia indartzea eta eguneratzea, Naturagune Babestuen Sarea zabaltzea, Kontserbazio-egoeren jarraipena egitea, Ekosistemak mantentzea eta hobetzea, Teknikariak prestatzea eta gaitzea, Erakundearteko koordinazio-kanalak sortzea, eta Herritarrak hezte eta sentsibilizatzea.*
3. *Zer alderditan dira bereziki elkarren osagarri, zure iritziz, biodibertsitatea eta geodibertsitatea estrategia horri begira?*
4. *Espezie exotiko inbaditzaileei dagokienez, zein izango lirakeke gakoak, zure iritziz, arazoari aurre egiteko lurralde ikuspuntua ez ezik, ikuspegi ekosistemikoa eta moldaerazko kudeaketa ere erabiliz?*
5. *Zer muga edo oztopo nagusi aurkitu dituzu zure ardurapeko arloan biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen kudeaketa eraginkorra egiteko?*
6. *Kapital naturalarekin lotutako zer gairi buruz behar dute, zure ustez, prestakuntza sakonagoa erakundeetako langile teknikoek?*
7. *Zein dira babestutako eremu bat, horrela izendatu ondoren, kudeatzearen alde onak eta txarrak, horrelakorik badago?*
8. *Zer jardunbide egoki ezagutzen dituzu (edo hala direla uste duzu) biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen kontserbazio-egoeren jarraipena egiteko?*
9. *2020rako EAEko IV. Ingurumen Esparru Programaren 1. Helburu Estrategikoa aintzat hartuta («Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratzeko, ekosistemak eskaintzen dizkiguten zerbitzuak gerizatze»), horri erantzuten baitio lantzen ari garen*

estrategiak, zer helburu eduki behar ditu 2030rako EAEko Biodibertsitate Estrategiak 2020 eta 2030era begira?

10. Kapital naturaleko elementuak (biotikoak eta abiotikoak) mantendu eta hobetzeko, zein 5 lehentasunezko jarduketa-ildo proposatzen dituzu?

Jasotako zazpi galdetegiaren bidez, guztira, **53 ekarpen** bildu ziren.


Galdetegia erantzun zuten pertsonen sexuaren arabera banaketa honako hau da:

Sexua	Pertsona kopurua	%
Emakumeak	3	% 43
Gizonak	4	% 57
Guztira	7	% 100

d) Biodibertsitateari buruzko lehenengo Gizarte Foroa

Foroa otsailaren 10ean egin zen, Bilboko Bizkaia Aretoan (Baroja auditoriuma), 10:00etatik 14:00etara. Hasieran, hiru ordu eta erdi irautea aurreikusten zen arren, azkenean, parte-hartzaileekin kontsultatuta, lau ordura luzatzea erabaki zen, haiek laneko dinamiketan sakontzen jarraitzeko interes handia zeukatelako.

Gizarte Foroan ehun lagun inguru egon ziren goiz osoan. Hurrengo grafikoan, aipatutako forora bertaratutako pertsonen askotariko profilak agertzen dira:



Bertaratu ziren pertsonen sexuaren araberako banaketa honako hau izan zen:

Sexua	Pertsona kopurua	%
Emakumeak	37	% 50
Gizonak	37	% 50
Guztira	74	% 100

Jarraian, parte-hartze jardunaldiko emaitzak zehaztuko dira, 3 bloketan multzokatuta:

- **EAEko 2030erako Biodibertsitate Estrategiaren ikuspegia:** *Euskadiko biodibertsitatea 2030ean zer egoeratan egotea lortu behar da?*

Galdera horri erantzuteko abiapuntua 2030erako Ikuspegiaren hasierako proposamena izan zen –Estrategia osatzeko jarraipen-mahaiaren talde teknikoak adostuta egin zen proposamena–. Parte-hartze prozesuaren helburua ikuspegi hori kontrastatzea eta askotariko ñabardurak eta ekarpenak batuz aberastea izan zen. Abiapuntuko testua, EBren Biodibertsitate Estrategiaren 2050erako Ikuspegian eta Euskadiko IV. Ingurumen Esparru Programan oinarritua, honako hau izan zen:

2030erako Ikuspegia: hasierako testua

2030ean hau lortu nahi da: i) Euskal Autonomia Erkidegoko ekosistemen degradazioa geldituta egotea, administrazio eskudunen eta gizartearen arteko lankidetzaren bidez; eta ii) ondare naturalak eskaintzen dituen zerbitzu ekosistemikoak balioetsita eta berreskuratuta egotea, daukaten berezko balioarengatik eta giza ongizateari zein oparotasun ekonomikoari egiten dieten funtsezko ekarpenarengatik.

Talde-lanari esker, desadostasunak edo zalantzak sortzen dituzten ikuspegi horretako alderdiak identifikatu ziren (argazkian gorritz), baita aberastu beharreko alderdiak ere (argazkian berdez).



Hauek dira, zehazki³:

- Hasierako ikuspegiarekin bat ez datozen edo zalantzan jartzen duten 8 ekarpen.
 - Ikuspegian barneratzekoak izan daitezkeen kontuan hartu beharreko 11 ekarpen.
- **Estrategiako lehenasunezko arreta-fokuak:** *Etorkizunean desiratzen den eszenatokia erreferentziatzat hartuta, zein izan behar dute Estrategiaren lehenasunezko arreta-fokuak?*

Taldeko lanaren ostean, atsedendian, talde dinamizatzailerak mahai bakoitzeko emaitza guztiak irakurri zituen eta ideiak honako lehenasunezko arreta-fokuetan multzokatu zituen⁴:

- Baliabideak modu jasangarrian eta bidezkoan erabiltzea.
 - Ekosistemak babestea eta kontserbazio aktiboa.
 - Natura-kultura.
 - Kolaborazio eta parte-hartze publiko-pribatua.
 - Koherentzia eta transbertsalitatea. Efikazia eta eraginkortasuna kudeaketan.
 - Ezagutza sortu eta partekatzea.
- **Lehenasunezko helburuak eta lan-ildoak:** *Aukeratutako foku bakoitzerako zer helburu eta lan-ildo jaso behar ditu Estrategiak?*

Azken zati hori lantzeko, pertsona bakoitzak bere ustez interesgarriena zen Estrategiako arreta-fokua aukeratu zuen, eta horren arabera, gaikako 9 mahaia osatu ziren:

- 2 mahaik «Baliabideak modu jasangarrian eta bidezkoan erabiltzea» fokua landu zuten.
- 2 mahaik «Ekosistemak babestea eta kontserbazio aktiboa» fokua landu zuten.
- 2 mahaik «Natura-kultura» fokua landu zuten.

³ Zehaztutako ekarpenak Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroko emaitzen txostenean daude: http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/7830/Resultados_Foro_social_10_febrero.pdf?1458635226 (azken sarrera 2016-5-9an).

⁴ Foku bakoitzaren atzean dauden ideiak edo proposamenak aurreko estekan daude, zehazki irudikatuta.

- Gainerako fokuak («Kolaborazio eta parte-hartze publiko-pribatua»; «Koherentzia eta zeharkakotasuna», «Efikazia eta eraginkortasuna»; «Ezagutza sortu eta partekatzea») bakoitza mahai batean landu ziren.



Mahai bakoitzaren proposamenetatik eratorritako emaitzak, gaikako fokuetan multzokatuta, honako hauek dira⁵:

Fokuak	Helburuak	Jarduketa-ildoak
Baliabideak modu jasangarrian eta bidezkoan erabiltzea	9	10
Ekosistemak babestea eta kontserbazio aktiboa	11	12
Natura-kultura	6	16
Kolaborazio eta parte-hartze publiko-pribatua	4	4
Koherentzia eta transbertsalitatea. Efikazia eta eraginkortasuna kudeaketan	5	8
Ezagutza sortu eta partekatzea	7	4
Ekarpenak, guztira	42	54

Guztira, Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroan Estrategiako jarduketa-ildoak eta ekintzak definitzeko **96 ekarpen** jaso ziren.

e) Irekia web-plataforman prozesua bultzatzea

Irekia herritarrak eta Eusko Jaurlaritza Internet bidez zuzenean komunikatzeko kanal bat da, gardentasunean, parte-hartzean eta elkarlanean oinarritua. Plataforma digital horren

⁵ Parte-hartzaileek foroan proposatu zituzten helburuak eta jarduketa-lerroak Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroko emaitzen txostenean zehazki jasota daude: http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/7830/Resultados_Foro_social_10_febrero.pdf?1458635226 (azken sarrera 2016-5-9an).

bitartez herritarrek Biodibertsitate Estrategia lantzeko prozesuan gehitzen joan diren proposamenei buruzko iruzkinak eta zalantzak helaraztea izan da helburua.

Plataformak 2016ko apirilaren 30era arte eman du ekarpenak egiteko aukera:

Irekiako parte-hartze faseak	Data
Aurkezpena	2015/10/30 – 2015/11/01
Eztabaida	2015/11/02 – 2016/04/30
Ondorioak	2016/05/01 – 2016/05/31

Kanal horretan, kontsultatzeko eta informatzeko dokumentu ugari egon dira, eztabaidatzen laguntzeko:

- Eztabaidatzeko 5 dokumentu:
 - EAEko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programa⁶.
 - Euskadiko Biodibertsitatearen Karta⁷.
 - EBren Biodibertsitateari buruzko 2020ra arteko Estrategia⁸.
 - EBren Biodibertsitateari buruzko 2020ra arteko Estrategiaren tarteko berrikuspena⁹.
 - Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmeneko¹⁰ 2011-2020 aldirako Dibertsitate Biologikoaren Plan Estrategikoa.
- Estrategia egiteko prozesuaren emaitzak biltzen dituzten 5 dokumentu:
 - Naturzaintzaren aurkezpena (2015/09/28).
 - Udalsarea 21eko Batzorde Teknikoaren tailerreko emaitzak (2015/12/02).
 - Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroko emaitzak (2016/02/10).
 - Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroan aurkeztutako Diagnostikoko Funtsezko Ideiak (2016/02/10).

⁶ <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/informazioa/2020ko-ingurumen-esparru-plana/r49-5832/eu/>

⁷ http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95/eu/contenidos/informacion/carta_biodiversidad/eu_reverse/indice.shtml

⁸ http://ec.europa.eu/environment/nature/biodiversity/strategy/index_en.htm (azken sarrera 2016-5-9an).

⁹ <http://www.euskadi.eus/albiste/2015/biodibertsitatearen-europako-2020rako-estrategiaren-tarteko-berrikuspena/web01-s2ing/eu/> (azken sarrera 2016-5-9an).

¹⁰ <https://www.cbd.int/sp/> (azken sarrera 2016-5-9an).

- EAEko Natura Ondareari buruzko Diagnostikoa (2016/03/14).

Aldi berean, Irekian Estrategiaren lanketarekin lotutako bi albiste argitaratu ziren:

- «Euskadiko Biodibertsitate Estrategia, herritarren parte-hartzeari irekia».
- «Ehun bat eragile publiko eta pribatu ari dira Euskadiko 2030erako Biodibertsitate Estrategia osatzen».

Hala ere, bide digitalean gero eta iritzi eta iruzkin gehiago jasotzen diren arren, Biodibertsitate Estrategiaren kasuan bitarteko horretan ez da parte-hartze handirik izan:

Sexua	Pertsona kopurua	%
Emakumeak	0	% 0
Gizonak	1	% 100
Guztira	1	% 100

Horrez gain, aldeko zazpi boto jaso dira (kopuru osoaren % 100). Horien sexuaren arabera banaketa ezin izan da egin, tresnaren mugak direla-eta.

f) Parte-hartze prozesuaren laburpen-koadroa

Parte-hartze prozesuaren fasea	Parte-hartzaileen kopurua	Adinaren arabera banaketa		Proposamen kopurua
		Emakumeak	Gizonak	
Udalsarea 21ekiko lan-tailerra	11	8	3	62
Funtsezko eragileei elkarrizketak	9	3	6	58
Teknikarientzako galdetegiak	7	3	4	53
Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroa	74	37	37	96
Irekia web-plataforman prozesua bultzatzea	1	0	1	1
Guztira	102	51 (% 50)	51 (% 50)	270

Ekarpen horietaz gain, AZTI-Tecnaliak bere ekarpenak, itsas-ingurunearekin bakarrik lotuak, posta elektronikoki bidali zituen. Dokumentu horretan 23 ekarpen biltzen ziren.

Beraz, gutxi gorabehera, **270 ekarpen** jaso dira parte-hartze prozesu osoan.

4. JASOTAKO EKARPENEN BILDUMA

Atal hau gaitutako parte-hartze kanal guztietatik jasotako ekarpenen bilduma bat da. Aurrerago ikusiko den bezala, informazioa parte-hartze prozesuko faseen arabera banatuta agertzen da:

- Udalsarea 21eko teknikarientzako inkesta.
- Funtsezko eragileei elkarrizketak.
- Teknikarientzako galdetegiak.
- Biodibertsitateari buruzko lehenengo Gizarte Foroa.
- Irekia web-plataforman prozesuari bultzada ematea.

Udalsarea 21eko teknikarientzako inkestaren, teknikarientzako galdetegien eta funtsezko eragileei egindako elkarrizketen kasuetan, proposamenak 2030erako 5 Helburutan multzokatu dira, eta Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroan adostutako 5 fokuei dagozkie. Proposamen horiek guztiak ezberdinak dira, eta horregatik, kasuan kasu, jarduketa-ildo edo ekintza gisa multzokatu dira.

a) Udalsarea 21eko teknikarientzako inkesta

2030erako helburuak	Proposamenak	Mota
Baliabideak modu jasangarrian eta bidezkoan erabiltzea	1. Natura-balioen jabe diren landako udalerrien eta hirietako kontserbazionisten arteko sintonia hobetzea.	Jarduketa-ildo
	2. Lurralde zabalagoa barne hartzen duten proiektuetara inbertsio handiagoa zuzendu eta protagonismo handiagoa ematea, proiektu zehatz batzuei baino (arrano arrantzalea, zikoina zuria, eta abar).	Ekintza
Ekosistemak babestea eta kontserbazio aktiboa	3. Biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen kudeaketa eraginkorrean lidergo politikoa izatea.	Jarduketa-ildo
	4. Udal-politiketan ekosistemak babesteari lehentasuna ematea.	Ekintza
	5. HAPOetan biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen arloko lehentasunak behar bezala kontuan hartzea.	Ekintza
Natura-kultura	6. Herritarren eta ordezkari politikoen artean natura-ondareari buruzko ezagutza eta kontzientziarioa areagotzea.	Jarduketa-ildo
	7. Zerbitzu ekosistemikoen kontzeptua eta haien garrantzia ezagutaraztea.	Ekintza

2030erako helburuak	Proposamenak	Mota
	8. Ezagutza teknikoaren areagotzea. Honako gaien inguruko informazio gehiago ematea: zerbitzu ekosistemikoak; ekosistemen kontserbazio-egoera eta hobetzeko neurriak; espezie mehatxatuen egoera eta hobetzeko neurriak; lurraldearen zaintza; tokiko biodibertsitate-estrategia; Natura 2000 Sareko espazioen komunikazioa eta sentsibilizazioa; ibaien kalitatearen jarraipena (faktore fisiko-kimiko eta biologikoak); udalerrian martxan dauden edo ezar daitezkeen estrategiak; legedia, basoen kudeaketa eta espezie mehatxatuak.	Jarduketa-ildoak
	9. Erakundeetako arduradunei zerbitzu ekosistemikoen balioa eta haien kalitatea mantentzeko edo hobetzeko inbertsioek duten dakarten errentagarritasuna ezagutaraztea.	Ekintza
	10. Herritarrek ekosistemen kudeaketa eraginkorrari buruz duten interesa areagotzea.	Ekintza
	11. Tokiko administrazioei gune babestuen kudeaketari buruzko informazioa ematea.	Ekintza
Kolaborazio eta parte-hartze publiko-pribatua	12. Lehen sektorearekin akordioetara heltzea.	Ekintza
	13. Lurren jabetzatik eratorritako gatazkak konpontzea.	Ekintza
Koherentzia eta transbertsalitate a. Efiakzia eta eraginkortasuna kudeaketan	14. Foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa, eta oro har, udalez gairik erakundearen artekoa, handitzea edo eraginkorrago bihurtzea. Borondate handiagoa.	Ekintza
	15. Foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak benetako kudeaketa-aurrekontu bat partekatzea (ez langile-gastuak eta gastu administratiboak bakarrik).	Ekintza
	16. Udalsarea 21 indartzea eta bai arlo teknikoari bai aurrekontuari dagokienez bultzada handiagoa ematea, ahal bada. Udalsarea 21 etorkizunera begira blindatzea edo bermeak ematea.	Ekintza
	17. Legedia eta foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko eskumen-banaketa sinpletzea.	Ekintza
	18. Aurrekontu-partidak handitzea.	Ekintza
	19. Gune babesturik ez daukaten udalei diru-laguntzak lortzeko aukera ematea.	Ekintza
	20. Beharrezko baliabide teknikoak ematea.	Ekintza

b) Funtsezko eragileei elkarrizketak

2030erako helburuak	Proposamenak	Mota
Baliabideak modu jasangarriaren eta bidezkoan erabiltzea	1. Landa-guneak indartzea eta nekazaritza uztearen arazoari buelta ematea.	Jarduketa-ildoak
	2. Nekazarien lana behar bezala baloratzea, eta hala, egiten duten lana ulertzea eta lehen sektore horrek gizarteari, bai sozialki bai ekonomikoki, ematen dizkion onura ekonomikoak, ekologikoak eta sozialak estimatzea.	Jarduketa-ildoak
	3. Natura-ondarearen erabilera jasangarriaren eta horren kontserbazioaren arteko oreka bilatzea, biodibertsitatearen babesa eta interes ekonomikoak bateratuz lurraldearen garapen jasangarria lortzeko.	Jarduketa-ildoak
	4. Produkzio eta kontsumo jasangarria indartzea.	Ekintza
	5. Baso-ekoizpena aktibatzea eta baso-jarduketak ondo antolatzea,	Ekintza

2030erako helburuak	Proposamenak	Mota
	eremuak banatuz.	
	6. Basogintza-politikan ur-bazterreko espezie jakin batzuk mantendu beharra ezartzea.	Ekintza
	7. Baso-sektorea ekoizpen-modu jasangarriagoekin kudeatzea aztertzea, adibidez, baso-sartzeak egin ordez bertako basoa erabiltzea edo fruta-arbola espezieak haztea, eta abar.	Ekintza
	8. Arrantza-politikan jarduketa oldarkor batzuk ezabatzea, adibidez: arrastea.	Ekintza
Ekosistemak babestea eta kontserbazio aktiboa	9. Natura 2000 eremuak kudeatzeko planetan jasotako neurriak lehenestea.	Ekintza
	10. Natura 2000 eremuetarako proposatutako neurriak dirubaliabidez hornitzea.	Ekintza
	11. Euskadiko Naturagune Babestuak babesteko figurak eta tresnak sinpletzea, hainbat figura egoteak nahasmena eragiten baitu.	Ekintza
	12. Europako biodibertsitatearen arloko tresnak Euskadiko errealitatera egokitzea, adibidez: Habitat Zuzentaraua.	Ekintza
	13. Bertako itsas-erreserbak izendatzea eta arrantza-babeslekuak sortzea, itsas-habitata kontserbatu ahal izateko.	Ekintza
	14. Existitzen diren babes-figuren barruan elementu geologikoak sartzea eta dagokien arau-dokumentuan daukaten balioa ematea.	Jarduketa-ildoak
	15. Lurralde-antolamenduaren barruan igarobide ekologikoak arautzea (arauketa hori parke naturalek dutenaren antzekoa izatea proposatu da), lurraldearen lotura bermatzeko tresna gisa.	Ekintza
	16. Espazioen arteko lotura sustatzea, azpiegitura berdeen bitartez, baita Naturagune Babestuetatik kanpo ere.	Jarduketa-ildoak
	17. Azpiegitura berdearen arloko jardunbide egokien adibideak lurraldeko toki gehiagotara hedatzea, urbanizatzeko sortzen dituen eraginei erantzuteko.	Ekintza
	18. Espezieak kudeatzeko planak aurrera eramateko behar beste baliabidez hornitzea.	Ekintza
	19. Habitat hondatuak ingurumen aldetik leheneratzeko neurriak ezartzea.	Ekintza
	20. Espezie exotiko inbaditzaileak epe luzera kudeatu ahal izateko arau-esparru bat edo bestelako jarraibideak finkatzea.	Ekintza
	21. Existitzen diren espezie exotiko inbaditzaileek sortzen dituzten arriskuak ebaluatzea eta espezie inbaditzaile batzuen presentzia «onartu» beharra baloratzea, ahalegin handia egitea eskatzen dutelako, dela teknikoki dela ekonomikoki.	Ekintza
	22. Honako alderdietan oinarritutako ikuspegi bat lantzea: «Espezie exotiko inbaditzaileen agerpena eta ugalketa ez bultzatzea», horien hedapena ez errazteko jarduketa-protokoloak finkatzea eta espezie aloktono inbaditzaileak ugaltzea eragiten duten habitatetako degradazio-prozesu guztiak leheneratzeko helburua daukaten proiektuak ezartzea (ekosistemen funtzionalitatea berreskuratzea). Hori egitea, arreta espezieak desagerrarazteko ahalegin hutsean jarri beharrean, jarduketa hori ekonomikoki kostu handikotzat jotzen delako eta epe ertain-luzean arrakasta lortuko duen zalantza handia sortzen duelako.	Jarduketa-ildoak

2030erako helburuak	Proposamenak	Mota
	23. Itsasontzietako lasta-ura zaintzea, espezie exotiko inbaditzaileak sartzeko bektore gisa.	Ekintza
Natura-kultura	24. Inplikaturako eragile eta sektore guztiak sentsibilizatzea eta prestakuntza ematea, taldeen interes ekonomikoetatik eratorritako gatazkak konpontzeko.	Jarduketa-ildoak
	25. Teknikariak edo langileak egoera jakin batzuetan nola jokatu jakiteko prestakuntza, kontzientziatzea eta sentsibilizatzea eta jarduketa-protokoloak edo jardunbide egokiak finkatzea.	Ekintza
	26. Sailetako teknikariei biodibertsitatearekin lotutako gaiak eta askotariko sektoreen jarduketari buruzko prestakuntza ematea.	Ekintza
	27. Pertsonak tokiko natura-ingurunea –beren ondarea– kudeatzeko ahaldundutzea sustatzea, jasagarritasunaren aldeko heziketara bideratutako ekintzen bitartez.	Jarduketa-ildoak
	28. Sektore guztietan natura-ingurunearen babesa barneratzea lortzeko ahaleginak egitea, maila eta sail guztiek zeharkakotasunez bere egin dezaten.	Ekintza
	29. Zerbitzu ekosistemikoak balioztatzea eta herritarrentzako zerbitzu gisa azpimarratzea, beraien interesetarako onuragarri gisa ikus ditzaten.	Jarduketa-ildoak
	30. Biodibertsitatea diru bihurtzea, ekosistema-zerbitzuen tresnaren bitartez.	Ekintza
	31. Natura 2000 Sarea zerbitzu ekosistemikoen ikuspegitik interpretatzea bultzatzea, gizakiengana hurbiltzeko.	Ekintza
32. Zerbitzu ekosistemikoak aztertzeke eskuragarri dagoen informazioarekin lotutako oinarritzko kartografia hobetzea.	Ekintza	
Kolaborazio eta parte-hartze publiko-pribatua	33. Eragile inplikatutako partaide sentiarazteko eta adostasun publiko-pribatua lortzeko parte-hartze prozesu errealak garatzea.	Jarduketa-ildoak
	34. Hainbat administrazio publikoren arteko koordinazioa eta elkarlana, lehenetsunak behar bezala aukeratzeko, kudeaketa-planak egin baino lehen.	Jarduketa-ildoak
	35. Beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea, helburu handinahiagoak lortzeko, adibidez: itsas-erreserbak sortzea eta kirol-arrantzako isilpekotasuna kontrolatzea.	Ekintza
	36. Sailen plangintza zeharkakoa izatea eta sailen artean elkarlanean aritzea.	Jarduketa-ildoak
	37. Lurraldea babesteko hitzarmenak sustatzea, lan-ildo gisa.	Ekintza
	38. Ikertzaileen, unibertsitate eta natura-ondarearen kudeatzaileen eta administrazioaren arteko komunikazio handiagoa bultzatzea.	Jarduketa-ildoak
	39. Herritarren Zientziako Plataforma ezartzea.	Ekintza
Koherentzia eta transbertsalitatea. Efiakzia eta eraginkortasuna kudeaketan.	40. Foru-aldundiei zuzendutako diru-laguntzen lerro bat gaitzea, Natura 2000 Sareko neurrien gastuei aurre egiteko.	Ekintza
	41. Biodibertsitatea eta natura-ondarearen kontserbazioa politika sektorial guztietan barneratzea, Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza batzuk sentsibilizatzen joan daitezkeen, eta hala, biodibertsitatea beren plangintzen barruan sartu beharreko beste ardatz bat izan dadin.	Jarduketa-ildoak

2030erako helburuak	Proposamenak	Mota
	42. Uraren Esparru Zuzentaraua Natura 2000 eremuetako plangintzetan barneratzea.	Ekintza
	43. Koordinatzeko organo bat eratzea: ingurumenaren arloko batzorde politiko arautzaile bat, esparru kontzeptual bakarra finkatu dezan eta sortzen diren gatazkak konpondu ditzan.	Ekintza
	44. Nekazaritzako eta biodibertsitateko esparru teknikoaren arteko gatazka konpontzea.	Jarduketa-ildoak
	45. Lehenetsun partekatuetara ahaleginak eta baliabideak zuzentzea, erakundearteko eta sailarteko koordinazioa eta elkarlana lortzeko (udalak, foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza, URA, elkarteak, eta abar) eta horren bidez plangintza bateratua egiteko.	Jarduketa-ildoak
	46. Eragileen artean (lehen sektorea, industria, bestelako erakundeak, adibidez URA, Garraio Sailburuordetza, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila...) gutxienezko akordio batera iristea.	Jarduketa-ildoak
	47. Euskadin orain arte biodibertsitatearen arloan egin diren ahaleginak eta aurrera eramane diren inbertsioak ebaluatzea eta horien eraginkortasuna kuantifikatzea, benetan aurrera egiten eta hobetzen ari garen ikusteko.	Ekintza
	48. Euskadin natura-ondarearen inguruan dagoen dokumentu-, araudi- eta egitura-kolapsoa konpontzea eta sinpletzea, errazago interpretatzeko eta lurraldea kudeatzearen aldeko apustua egiteko, tresna gehiago sortzearen alde egin beharrenean.	Jarduketa-ildoak
	49. Mugak, baliabide erabilgarriak, kontuan hartzea eta jarduketak lehenestea, gune babestuak kudeatzeko planetan neurriak sinpletzeko eta antolatzeko.	Jarduketa-ildoak
	50. Araudiak aplikatzerakoan zorrotzagoak izatea, interes sozioekonomiko jakin batzuk tartean sartu gabe.	Ekintza
	51. Itsasoan eta kaltetan zaintza handiagoa ezartzea eta babestu beharrezko eremuak kudeatzea, beharrezko kontrol- eta kudeaketa-mekanismoak ezarrita. Itsasoan egiten diren jarduketak kontrolatzea (arrantza profesionala, kirol-arrantza, aisialdiko jarduketak, energia-sektorearekin lotutako azpiegiturak, itsasoko autobideak, etab.).	Ekintza
	52. Biodibertsitate Estrategiarekin batera Komunikazio Estrategia bat aurrera eramatea, xede-hartzaile argi bat izanda: natura-ingurunea kudeatzen duten eragileak (adibidez, nekazari-abeltzainak, baso-ustiatzaileak...).	Ekintza
	53. EAEko 2030erako Biodibertsitate Estrategia berriaren jarraipen bat egitea, horren jardueren eraginkortasun-maila aztertu ahal izan dadin.	Ekintza
	54. Berrikuspen-prozedura malguak barneratzea eta Estrategiako ekintzen arrakasta eta askotariko helburu moten betetzea berriz ebaluatzea, Estrategia berregin ahal izateko egokitze-kudeaketa egiteko.	Ekintza
Ezagutza sortu eta partekatzea	55. Informazioa sortzera ahalegin gehiago bideratzea eta jarraipen-lanak egitea, habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ezagutzeko.	Ekintza

2030erako helburuak	Proposamenak	Mota
	56. Egiturak eta tresnak hobetzea, ikertzaileek, teknikariek eta kudeatzaileek ematen duten informaziotik abiatuz ezagutza sortzea ahalbidetu dezaten, eta hala, sortutako informazioa kudeaketarako ezagutza erabilgarria bilakatu dadin, bai administrazioentzat bai herritar ahaldunduentzat.	Jarduketa-ildoak
	57. Natura-ondarea osatzen duten elementuei, horiek gobernatzeko dituzten prozesu abiotiko eta biotikoei eta elkarren arteko harremanei buruzko ezagutza sortzea.	Jarduketa-ildoak
	58. Ekosistemen «osasun-egoeraren» adierazleen eredu homogeen bat definitzea; erakundeek eta eragileek lortutako emaitzen arabera erabakiak hartzeko aplikatu ahal izango duten eredu bat.	Ekintza

c) Teknikarientzako galdetegia

2030erako helburuak	Proposamenak	Mota
Baliabideak modu jasangarrian eta bidezkoan erabiltzea	1. Ohiko nekazaritza-erabilerak sustatzea eta balio naturalekin lotuago dauden erabilerak barneratzea eta indartzea.	Jarduketa-ildoak
	2. Kudeaketan lurren jabeak era erabiltzaileak baztertzea saihestea; bereziki, espazio horien barruan ekoizpen-jarduketa bat egiten dutenak, eta horien artean, biodibertsitatea mantendu edo sortzen duten erabilerak egiten dituztenak.	Ekintza
	3. Baso-sartzeekin lotutako jarduerak ingurunean egiten dituzten erasoak murriztea; bereziki, azkar hazten diren sailetan oinarritutako baso-jarduketa mugatzea.	Jarduketa-ildoak
	4. Kapital naturala sortzen duten erabilera bateragarriak sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko LGPko ingurumen- eta nekazaritza-laguntzak bultzatuz.	Ekintza
	5. Baliabideak ustiatzeko sistema ez-intentsiboak garatuko dituzten sistema heterogeneoak sustatzea.	Ekintza
	6. Jarduketak nekazaritza- eta basogintza-sektoreetara bideratzea.	Jarduketa-ildoak
	7. Tokiko askotariko interesak natura-ingurunea babestearekin bateragarri egitea.	Jarduketa-ildoak
Ekosistemak babestea eta kontserbazio aktiboa	8. Ekosistemen zerbitzuak maximizatzeko azpiegitura berdeen sare bat definitzea, kudeatzea eta mantentzea.	Ekintza
	9. Euskal Autonomia Erkidegoko igarobide ekologikoen sarea garatzea eta toki-mailako lotura areagotzearen alde lan egitea.	Ekintza
	10. Espezie exotikoekin prebentzio-printzipioa aplikatzea: sartzea saihestu (merkaturatzea kontrolatzea, espezie exotiko inbaditzaileen harrera arauketen eta ikuskapenen bidez geldiaraztea), zabaltzea saihestu (sakabanatzeko bideetan esku hartzea, adibidez, obrak direla-eta egiten diren lur-mugimenduetan) eta desagerraraztea (ale inbaditzaileak deuseztatzekeo jarduketak).	Ekintza
	11. Inbasio berriak: berehalako erantzun koordinatua, erakundearteko ikuspegitik. Diru-funtsez hornitzea eta erantzuteko plangintza estrategikoa.	Ekintza
	12. Espezie inbaditzaileak gune berrietara zabaltzea direla goiz detektatzeko alerta-sistemak garatzea.	Ekintza

2030erako helburuak	Proposamenak	Mota
	13. Espezie inbaditzaileak desagerrarazteko eta kontrolatzeko jarduketak: luzaroan mantendu ahal izango diren eta kostu onargarria daukaten helburu errealistak finkatu behar dira, askotan deuseztatzea oso zaila edo ezinezkoa delako.	Ekintza
	14. Bai desagerraraztearekin lotutako eraginak (biozidak edo harrapatze-metodo ez selektiboak erabiltzea) bai espezie inbaditzaileak kontrolatzeak edo desagerrarazteak sortzen dituen ingurumen-onurak kontuan hartuko dituen ebaluazio bat egitea. Baliteke askotan eragin zehatz larriak onartu behar izatea, arazoa handia delako.	Ekintza
	15. Espezie exotikoen kontrako borrokatzeko epe ertain eta luzerako plangintza bat edukitzea. Espezie exotiko inbaditzaileen kontra borrokatzeko estrategiak.	Jarduketa-ildo
	16. Gune babestuetatik kanpoko kapital naturalaren egoera hobetzea, Naturagune Babestuen Sarearen koherentzia indartzeko.	Ekintza
	17. Ur-sistemen osasuna hobetzea.	Ekintza
	18. Habitat eta espezieak gune babestuetatik kanpo sustatzeko eta hobetzeko ekintza-planak ezartzea.	Ekintza
Natura-kultura	19. Ingurumenarekin eta sektoreekin lotutako informazio-sistemak integratzea.	Jarduketa-ildo
	20. Biogeodibertsitatearen inguruko ezagutza hobetzea eta balio horiek sektore teknikoei –bai publikoak bai pribatuak–, eta oro har, herritarrei modu efizientean ezagutaraztea.	Jarduketa-ildo
	21. Dibulgazioan eta herritarren sentsibilizazioan lan egitea, espezie exotiko inbaditzaileen prebentzioa bermatzeko.	Ekintza
	22. Teknikariei prestakuntza ematea, erabaki-hartzean modu eraginkorrean parte har dezaten.	Ekintza
	23. Ohiko erabiltzaileei babesaren esanahiaren eta kudeaketan arazoak eragiten dituzten babesaren baldintzatzaileen inguruko prestakuntza ematea.	Ekintza
	24. Ondorioak komunikabideetan argitaratzea.	Ekintza
	25. Ingurumenaren arloko hezkuntza, kontzientziaketa eta dibulgazioa.	Jarduketa-ildo
	26. Erakundeetako kideak kontzientziatzea.	Ekintza
	27. Lurralde-eremu txikietan dauden biogeodibertsitate-balioei buruzko ezagutza areagotzea.	Ekintza
28. Landa-munduan biogeodibertsitateak dituen balioen eta zerbitzuen dibulgazioa hobetzea, jarrera paternalistatik gabe, nekazaritzako ohiko jarduketek biodibertsitatearen gaineko eragina minimizatu dezaten.	Jarduketa-ildo	
Kolaborazio eta parte-hartze publiko-pribatua	29. Kapital naturalaren gobernamentua hobetzea, erakundearteko koordinazioa eta koordinazio publiko-pribatua barne hartuta.	Jarduketa-ildo
	30. Ingurumeneko sailtetako arduradunen independentzia ahalbidetzea, beren lana ez dadin interes sektorialen mende egon; hau da, industria, hirigintza, ehiza, errepide, nekazaritza, egurra ekoizteaz bakarrik arduratzen diren baso-ustiatzaile, eta abarren mende.	Ekintza

2030erako helburuak	Proposamenak	Mota
Koherentzia eta transbertsalitatea. Efikazia eta eraginkortasuna kudeaketan	31. Administrazioen politika sektorialetan, planetan, programetan eta proiektuetan biogeodibertsitate aldagaia modu eraginkorrean barneratzea.	Ekintza
	32. Administrazioaren jarduketan sektoreekin eta ingurumenarekin lotutako alderdiak barneratzeko beharrak hobeto ezagutzea.	Jarduketa-ildoak
	33. Erakundeen artean koordinazioa eta lan-batzordeak ezartzea.	Ekintza
	34. Espezie batzuk (arrainak eta beste) inbaditzailetzat ez jotzeko merkataritza-interesei aurre egitea.	Ekintza
	35. Esku hartzen duten administrazio guztien arteko kudeaketa bateratu eta koordinatua eta administrazio sektorialen inplikazioa (adibidez, Asiako liztorraren kasuan Nekazaritzarena).	Jarduketa-ildoak
	36. Finkatutako helburuak aurrera eramateko eta indarreko legedia aplikatzen eta betetzen den kontrolatzeko, hau da, «kudeaketa eraginkorra» egiteko, bitartekoak jartzea (behar adina baliabide tekniko eta finantzario).	Jarduketa-ildoak
	37. Behar adinako aurrekontuaz hornitzeko borondate politikoa.	Jarduketa-ildoak
	38. Kontserbazio-neurriak lehenestea, helburuak baliabide mugatuekin lortzeko.	Ekintza
	39. Lurraldearen ikuspegi holistikoa, kudeaketa jasangarria izateko beharrezkoa.	Jarduketa-ildoak
	40. Ingurumenaren babes politikaren sektorialen aurrean gailentzearen lege-printzipioa betearaztea.	Ekintza
	41. Administrazioek eman behar dituzten mota guztietako baimenetan, espezieak eta komunitateak babestearekin lotutako baldintzatzaileak modu eraginkorragoan kontuan hartzea.	Ekintza
	42. Existitzen diren Naturagune Babestu guztiak kudeatzeko tresnak garatzea eta eguneratzea.	Ekintza
	43. Gobernamendu efizientea: lurralde horien arduradunak edo erabiltzaileak diren eragile publikoen eta pribatuen artean helburu komunak finkatzea eta jarduketa-plan partekatutako garatzea.	Jarduketa-ildoak
	44. Araudiaren inguruko ezagutza eguneratzea.	Ekintza
	45. Administrazio guztiek biogeodibertsitatea kontserbatzeko beharra barneratzea.	Jarduketa-ildoak
Ezagutza sortu eta partekatzea	46. Ikerketa.	Ekintza
	47. Kostu ekonomiko jasangarri batekin sistema sendo bat mantentzea ahalbideatzeko jarraipen-adierazleak sortzea eta zehaztea.	Ekintza
	48. Flora- eta fauna-komunitateen eta habitaten dinamiken inguruko ezagutza hobetzea.	Jarduketa-ildoak
	49. Espezie exotikoen banaketa espaziala ezagutzea eta inbentario bat egitea, gutxienez oraingoz kaltebera gisa definitutako eremuetan (babesen bat daukatenak).	Ekintza
	50. Naturagune Babestuen kontserbazio-egoeraren inguruko ezagutza handitzea eta hobeto kudeatzea, adierazleak bitartez.	Jarduketa-ildoak
	51. Fauna-komunitateen epe luzerako jarraipena egitea, «herritarren zientzia»ren, administrazioaren eta abarren bitartez.	Ekintza
	52. Arreta txikia jaso arren ekologiaren arloan funtsezko rolak betetzen dituzten fauna-taldeen kontserbazio-egoeraren jarraipena eta ebaluazioa sustatzea, adibidez: intsektu polinizatzaileena.	Ekintza

2030erako helburuak	Proposamenak	Mota
	53. Ekosistemen zerbitzuen kontzeptuan sakontzea biogeodibertsitatearekin lotuta eta ekosistemen funtzionamendua ezagutzea.	Ekintza

d) Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroa

Fokua	Helburuak	Lan-ildoak
Baliabideak modu jasangarrian eta bidezkoan erabiltzea	1. Baliabideak modu jasangarrian eta bidezkoan erabiltzea zer den definitzea.	1. Sektore ekonomikoek ekosistemei eragiten dizkieten ondorioak zenbatzea.
	2. Lurraldeko erabilerak eta kudeaketak bateragarri egitea, kudeaketa jasangarria lortzeko.	2. Lehentasunak narriadura-prozesuan dauden baliabideen arabera ezartzea.
	3. Ingurumen-politika gainerako sektorekako politiketan sartzea.	3. Erabilera jasangarrien pizgarri-sistemak diseinatzea eta abian jartzea.
	4. Baliabideak modu jasangarrian erabiltzea sustatuko duten ekonomiak sortzea: ingurumena ekonomiaren funtsezko parte izatea.	4. Ekonomia zirkularra/berdea sustatzea. Kudeaketa jasangarritik eratorritako produktuak sustatzea.
	5. Landa-eremuan aberastasuna sortzearen eta lurraldeko funtzio aniztasunaren arteko oreka aurkitzea.	5. Ingurune naturala mantentzeko eta kontserbatzeko beharrezkoak diren erabilera tradizionalak balioztatzea eta bultzatzea.
	6. Sektoreko eragileak inplikatzeko eta haiekin hitzarmenak egitea lortzea.	6. Landa-eremua berriz populatzeko laguntza, lehen sektoreko jarduerak garatuz: produkzio-estrategiak eta tokiko elikagaiak kontsumitzea.
	7. Kontserbazio-ahaleginei eraginen araberako lehentasuna ematea.	7. Landa-eremuan ekimen berriak gauzatzea.
	8. Kontrol eta zaintzako baliabideez hornitzea, indarreko ingurumen-araudia betetzen dela bermatzeko.	8. Ekonomia-jardueretan ingurumenaren arloko jardunbide egokiak definitzea eta txertatzea.
	9. Estrategia garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak hornitzea.	9. Gai jakinei buruzko lan-foroak sortzea.
Ekosistemak babestea eta kontserbazio aktiboa	10. Natura 2000 eremuetako kudeaketa-planak idaztea eta 2020erako ezartzea –edo ezartzen hastea–. Natura 2000 Sareari lotuta habitata leheneratzeko ekintzak egiteko gutxienezko aurrekontu bat zehaztea eskatuko du horrek.	11. Natura 2000 Sareko kontserbazio-egoeraren jarraipena: metodologia komuna ezartzea eta jarraipen-zereginei ekitea.
	11. Kontserbazio-egoera onean dauden habitaten eta espezieen ehunekoa –definitzeko–.	12. Naturari eta ingurune naturalei leku gehiago uztea: sare lotu bat eratu behar dute, ez zatitua.
	Oharra: Halaber, itsasoko eta kostaldeko habitat eta espezieetarako berariazko	

Fokua	Helburuak	Lan-ildoak
	<p>helburu bat finkatzea proposatzen da.</p> <p>12. Natura 2000 Sareko parte ez diren habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ezagutzea eta sare horrekin bateragarriak diren kudeaketa-irizpideak barneratzea.</p> <p>13. Igarobide ekologikoen sarerako lege-estaldura egokia definitzea eta hornitzea, baita 2020rako kontserbazio-neurriak ezartzen hastea ere.</p> <p>14. Itsas-eremu babestuen sare bat sortzea.</p> <p>15. Paisaia moldagarria eta funtzionala mantentzea.</p> <p>16. Biodibertsitatea beste sektore-politika batzuetan integratzea.</p> <p>17. Maila txikiko energia- eta elikadura-hornikuntza propioranzko aurrerapausoak ematea.</p> <p>18. Ekosistemen babes aktiboan inplikaturik dauden agente guztien elkarrekintza lortzea.</p> <p>19. Legea betetzen dela kontrolatzeko baliabideez hornitzea.</p> <p>20. Estrategia baliabide natural eta giza baliabide nahikoez hornitzea.</p> <p>Oharra: Helburu horrek zerikusi handiagoa du agian Estrategiaren planteamendurekin. Adibide gisa Plan Hidrologikoa aipatu da.</p>	<p>13. Arriskuan dauden espezieen katalogoa berrikustea eta eguneratzea, ezagutza berria gehituz. Horretarako, malgutasun administratiboa eta juridikoa behar da.</p> <p>14. Itsas-eremuko plangintza garatzea eta ezartzea.</p> <p>15. Itsasoko Natura Sarea.</p> <p>16. Kostako ekosistemak berreskuratzea eta leheneratzea.</p> <p>17. Espezie inbaditzaileei aurre egiteko eta desagerrarazteko plan bat egitea, araugarapena eta ezagutza barne hartuta. Oharra: Horren garrantzia eta bertatik eratorri daitezkeen ekintza kopurua direla eta, taldeak helburutzat hartzearen eta lan-ildo gisa uztearen artean zalantzak izan zituen.</p> <p>18. Eusko Jaurlaritzak onartu dituen eta tokiko erakundeek aplikatu ditzakeen tokiko natura-balioak babesteko figurak aztertzea: «tokiko sustapeneko babes-figurak».</p> <p>19. Hiri-paisaia: azpiegitura berdeak eta jasangarriak berriz sortzea eta garatzea hiriguneetan.</p> <p>20. Ulermenerako eta kudeaketa egokirako parte-hartze foroak.</p> <p>21. Lurzoru-bankuak</p> <p>22. Lurraldea zaintzeko lege-esparrua: herritarrak eta gizarte-eragileak inplikatzeko.</p>
<p>Natura-kultura</p>	<p>21. Herritarren eta naturaren arteko harreman estuagoa lortzea: herritarren pentsaera aldatzea sustatzea, zoriona emango dien bizitzaren ikuspegi bateratu eta errespetuzko bat lortzeko.</p> <p>22. Naturarekiko iraganeko balioak berreskuratzea.</p>	<p>23. Desegitea berriz eraikitzeko: naturari buruzko alde aurreko ereduak eta ideiak haustea.</p> <p>24. Herritarrei erantzunkidetasuna ematea eta ahalduntzea, ekitearren.</p>

Fokua	Helburuak	Lan-ildoak
	<p>23. Naturak ematen dituen zerbitzuak balioztatzea.</p> <p>24. Hezkuntza- eta sentsibilizazio-forma guztiak azpimarratzea.</p> <p>25. Enpresa-sektorea eta lehen sektorea sentsibilizatzea (inplikatzeari).</p> <p>26. Naturari eta, orokorrean, ingurumen-alderdiei buruzko kalitateko informazioa sortzea.</p>	<p>25. Sektorre ekonomiko ekoizkorretan jasangarritasunaren aldeko heziketa: nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza, hirigintza, azpiegiturak...</p> <p>26. Praktika onak enpresa mailan</p> <p>27. Alor formalean, ez formalean eta informalean jasangarritasunaren aldeko heziketa ematea. Irakastetik ikastera pasatzea. Hezitzaileak prestatzea.</p> <p>28. Herritarrak heztea honako kontzeptu hauetan, adibidez: aztarna ekologikoa, zor ekologikoa, ingurumen-justizia.</p> <p>29. Herritarren zientziako programak: ikerketa zientifikoetatik eta kudeaketatik eratorritako ezagutza eta informazioa sozializatzea.</p> <p>30. Hedabideetan ingurumenari buruzko informazio positiboa agertzea sustatzea. Iritzi-emaileak erabiltzea.</p> <p>31. Ingurumen-komunikazioko, hedapeneko eta interpretazioko adituak sustatzea.</p> <p>32. Ingurumen-hezitzaile figuraren prestatzea, ahalmentzea eta homologatzea.</p> <p>33. Ingurumen-ekipamenduak eta -programak balioztatzea eta hedatzea: sare sozialak eta bestelakoak.</p> <p>34. Plangintzako dokumentu guztien arteko koherentzia: estrategiak, lurraldearen antolamendurako artezpideak, plan sektorialak...</p> <p>35. Ingurumenarekiko errespetua sustatzen duten eragile guztien arteko koordinazioa.</p> <p>36. Udalerriek ingurune naturalean herritarrei zerbitzu publikoa emateko neurri fiskalak ezartzea.</p> <p>37. Elkarrekin administrazioarekin informazioa partekatzeko foro iraunkorrak.</p> <p>38. Estrategia urteko adierazleen bidez ebaluatze sistemak: Estrategia 5 urtean behin egokitzea, ebaluazioaren emaitzen arabera.</p>
<p>Kolaborazio eta parte-hartze publiko-pribatua</p>	<p>27. Lurraldea zaintzeko sistemak hobetzea.</p> <p>28. Enpresak biodibertsitatearen babesean eta kontserbazioan gehiago inplikatzeari lortzea: funts ekonomiko pribatuak, materialak...</p>	<p>39. Lurraldea zaintzeko sare bat sortzea: marko legala eta fiskala.</p> <p>40. Enpresa eta natura: funts ekonomiko eta materialak bideratzeko administrazio-figura, kolaborazio-hitzarmenak...</p>

Fokua	Helburuak	Lan-ildoak
	29. Ezagutza-guneak sortzea: gune fisikoa, giza baliabideak, baliabideak...	41. Ezagutza publiko-pribatua sortzeko guneak sortzea: administrazioa, unibertsitatea, GKEak... Eta geroko hedapena.
	30. Kolaborazio eta parte-hartze publiko-pribatuko guneak irekitzea.	42. Kolaborazio eta parte-hartze publiko-pribatuko foroak sortzea, funtzio argiak emanda, askotariko kezkak aztertze eta jarraipena egiteko. Foro horiek legeak egin baino lehen garatzea, eta Estrategiaren 2030era arteko jarraipena egitea.
Koherentzia eta zeharkakotasuna Efikazia eta eraginkortasuna kudeaketan	31. Agenteek (nekazaritza, administrazioa, enpresak...) lurraldean duten rola aitortzea eta ikusaraztea, adostasuna lortzeko abiapuntu gisa.	43. Desegitea berriz eraikitzeko: lurraldeko agente batzuen eta besteen rolari eta kudeaketari buruzko kontzeptuak argitzea eta zenbait mito, uste eta alde aurretiko ideia lantzea beharrezkoa da.
	32. Biodibertsitatea kudeatzeari buruzko adostasun-oinarria ezartzea, behar, interes eta agente ezberdinen arteko topagunetik eta elkarrizketatik abiatuta.	44. Agente bakoitzak lurraldearen kudeaketan duen rola ikusaraztea eta publikoki aitortzea.
	33. Politikan kultura-aldaketa bat egitea: administrazioen arteko koordinazioa vs. eskuduntza	45. Irizpideak batzea eta adostasuna lortzea, inplikaturako agente publiko-pribatu guztien konpromiso argi kuantifikatuetan oinarrituta. Esate baterako, eragile guztiek lurralde bateko % «x» aktiboki babestea eta kontserbatzea hitzartzen badute, jarraian, horrekin lotutako beharrak, zereginak, ardurak eta kostuak identifikatuko dira, eta eragile guztiak horri jarraikiz arituko dira.
	34. Hitzarmen publiko-pribatuak egitea.	46. Datu-base bakarra garatzea, EAEko ingurumen-informazio guztia eskuragarri duena.
	35. Araudiak koherentzia izatea lortzea.	47. Ezagutza zientifikoa nahastea: abiapuntu gisa, ezjakintasan handia dagoela aintzat hartu behar da, edo ezagutza partziala dela, eta gakoa gehitzea, nahastea eta ezagutzak batzea dela. 48. Biodibertsitatea kudeatzeko, hitzarmenetan eta adostasun publiko-pribatuan oinarritutako tresnak garatzea (eta ez bulegoetan oinarritutakoak). 49. Irizpideak batzea eta adostasuna lortzea, inplikaturako agente publiko-pribatu guztien konpromiso argi kuantifikatuetan oinarrituta. 50. Estrategiari buruz oro har: Estrategia bideragarri eta posible egingo duten agente arduradunak, konpromisoak eta finantzazioa argi eta garbi esleitzea

Fokua	Helburuak	Lan-ildoak
		(kultura-aldaketa).
Ezagutza sortu eta partekatzea	36. Politikei erantzuna emateko beharrezkoa den ezagutza identifikatzea.	51. Ezagutza zientifikoa erabiltzaileentzako egokitzea.
	37. Zientziaren, kudeaketaren eta politikaren arteko harremana gauzatzea.	52. Ezagutza-egitura bat sortzea eta figura-juridiko bat ematea.
	38. Ezagutza-sare iraunkor bat sortzea: sareen sarea.	53. Sareen sarea eta esperientzia arrakastatsua duten aliantzak.
	39. Dibulgazio zientifikoa bultzatzea.	54. Estrategiak eta planak eratzeko orduan, ezagutzari dagokionez dauden gabeziak identifikatzea; eta beharrezkoak diren ikerketak eta azterketak garatzea.
	40. Finantzazio iraunkorra epe luzera, irizpide zientifikoak jarraitzen dituen, eta ez administratiboak.	
	41. Ezagutza (normalizatua, estandarizatua, adostua) herritarren eskura eta erabilgarri jartzea.	
	42. Herritarren zientzia bultzatzea, zientziaren babesarekin.	

e) Prozesua Irekia web-plataforman

Ez da ekarpenik jaso. Lurralde Antolamendu atalarekin eta URArekin lotutako kontsulta bat erregistratu da, besterik ez.